

## 15

**PARTITIBOAREN ERABILERA OKERRA**

Partitiboaren marka lotzen zaienean, mugagabeen izan behar dute izen sintagmek:

*Ez dut liburu garestirik erosi.*

*Ez dut lanik egin.*

Hortaz, ez daude ongi emanak beste hauek:

*\*Ez dut liburu garëstiarik erosi.*

*\*Ez dut lanarik egin.*

Batez ere, izena kontsonantez amaitzen denean hedatu da zenbait euskaldunen artean berria, eta aldi berean gramatikaz kanpokoa, den ohitura hau: *\*lanarik, \*planarik, \*muskerrarik, \*mahatsarik, \*aipamenarik, \*plulararik, \*ahuntzarik, \*gizonarik, c.a.*

Hori horrela, aditzarekin egiten den komunztaduran izen sintagma partitiboek ez dakarte sekula numero markarik eta, honenbestez, adizkera jokatuan ezin dezakete erabil pluralik. Izen sintagma hauek ez dute sekula pluraleko komunztadura sorrarazten dagokien hizkeretan. Beraz, azken aldiotan hedatzen ari diren egitura hauek, hain segur erdal interferentziaren ondorio direnak, zeharo arrotzak eta baztertzekoak dira:

*\*Ez dituzte gaixoak sendatzeko behar diren tresnarik.*

*\*Aspaldian ez ziren entzuten horrelako hitzik.*

*\*Ez dituzu lagun onik aurkituko.*

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

**Erabil bedi partitiboa euskaraz, beti erabili izan den gisa, hau da, artikulurik gabe (*lagunik, lanik, ahuntzik, c.a.*) eta pluralik gabeko komunztadura eginez aditzarekin (*dugu, dute, genuen, e.a.*).**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)